

## **UDALBATZA OSOA.** **Bilkura-akta**

### **Ohiko bilkura**

**Data: 2016ko ekainaren 8a, asteazkena.**

2016ko uztailaren 13an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE). Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuren buru.

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzen eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

### Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko maiatzaren 11n eginiko ohiko bilkurako akta.
  2. Onestea 2016ko maiatzaren 30ean eginiko ezohiko bilkurako akta.
  3. Dekretuak eta alkatetzaren ebazpenak.
  4. **Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
    - 4.1. Bekolarrineta (zk./g.) kaleko hilerrian ehorzketak etetea.
  5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
    - 5.1. Haurreskolak partzuergoan udal-ordezkariek izendatzea.
  6. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea.**
  7. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua eta Hirigintza Batzordea.**
    - 7.1. EAJ-PNV taldeak aurkeztutako adierazpena, erabakitzeko eskubidearen aldekoa.
    - 7.2. Hiri-lurren balioa gehitzearen gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantza aldatzea. Zigor-erregimena.
    - 7.3. Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, jardueraren ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan.
    - 7.4. Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, zerga-helburuetarako informazioa trukatzeko.
    - 7.5. Kiroldegi-gunean hobekuntza obra eta autokarabanen aparkalekuko obren proiektua onartzea.
    - 7.6. Bazterra aretoa berritzeko obraren proiektua izapidetzea.
- Azken puntua. Galderak eta eskaerak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira.

### **1. Onestea 2016ko maiatzaren 11n eginiko ohiko bilkurako akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) 2016ko maiatzaren 11n eginiko bilkurako akta onestea.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

## **2. Onestea 2016ko maiatzaren 30ean eginiko ezohiko bilkurako akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2016ko maiatzaren 30ean eginiko ezohiko bilkurako akta.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Abstentzioak: 1 (bat): Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstenitu den zinegotziaren erabakiaren arrazoa da ez zela saioan izan.

## **3 Dekretuak eta alkatetzaren ebazpenak.**

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 85/16tik 103/16ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

Bilkurara batu da Campos Latre (PP) jauna.

## **4. Kultura, Turismo, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**

### **4.1 Bekolarrineta (zk./g.) kaleko hilerrian ehorzketak etetea.**

Alkate jaunak jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoren eta Mendekotasunen Zuzendaritzak Oyón-Oiongo hilerri zaharrean (Bekolarrineta, zk./g.) ehorzketak eteteko baimena ematea erabaki duela. Eta baieztatu du jarduera bat egin behar dela instalazio horretan; hondatutako bi eraikin daude: autopsien areto zaharra eta beste aldeko aretoa. Uste dugu interesgarria dela familiei erraztea hilotzak beste hilerriara lekualdatzea.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

## **5. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**

### **5.1. Haurreskolak partzuergoan udal-ordezkarriak izendatzea.**

Aurrekariak:

- 1) Haurreskolak partzuergoaren estatutuetako 11. artikuluko 1. atalean zera adierazten da: "Udalerri bakoitzak bere ordezkarria izango du Batzar Nagusian eta ondoko botoak izango ditu: 10.000 biztanlera arteko udalerriak boto 1".

2) Halaber, 11. artikuluan zera adierazten da: "Partzuergoan barne hartutako Udalek korporazioko kideen artean izendatu eta kargutik kenduko dituzte beren ordezkariak. Partzuergoaren ordezkarien iraunaldiak bat etorri beharko du toki-korporazioetan duten agintaldiarekin. Ordezkatutako erakundeek beren ordezkariak kargutik kendu eta horiek ordezkatuko dituztenak izendatu ahal izango dituzte, bai eta ordezkaritza izendatu ere edozein arrazoiengatik halakorik ez dagoenean".

3) Tokiko araudi-erregulazioa: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea; 21. eta 22. artikulua. Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia, 38.c, 41. eta 42. artikulua.

4) Bozeraileek proposatutako zinegotziak izan daitezke hautagaiak. Ordezkaritza izendatzeko, horretarako bozketan boto kopuruaren gehiengo sinplea lortu behar da. Ordezkaritza bakoitzaren aukeraketa ohiko bozketak bakar baten bidez egiten da.

5) EAJ-PNV taldeak egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Oiongo Udalaren ordezkari titular izendatzea Haurreskolak partzuergoaren Batzar Nagusian Idoia Eslava Guillerna zinegotzia.

Aldeko botoak: 4 (lau): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 4 (lau): Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

## **6. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea.**

## **7. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua eta Hirigintza Batzordea.**

### **7.1. EAJ-PNV taldeak aurkeztutako adierazpena, erabakitze eskubidearen aldekoa.**

Alkate jaunak EAJ-PNV taldeak aurkeztutako adierazpena, erabakitze eskubidearen aldekoa, irakurri du.

Villanueva Gutiérrez jn.: Askok harritzen gaitu adierazpena aurkeztea, eta, egia esan, atxiki egin behar gaitzaizkio, adierazpen horrek Bildu parlamentuko taldeak Eusko Legebiltzarrean 2014ko martxoaren 20an egindako proposamen bat jasotzen baitu.

Campos jn.: Zer esan nahi du erabakitze eskubideak? Zer esan nahi du mozioak Euskal Herriarekin: Euskal Autonomia Erkidegoa, erkidegoa eta Nafarroa edo frantziar lurraldeak ere hartzen dira baita? Denok estatu baten zati bagara, nork du erabakitze eskubidea? Testua anbigua iruditzen zait, etorkizunaz hitz egiten du... ez dut argi.

EAJ-PNV taldeak erabakitze eskubidearen alde aurkeztutako adierazpena bozkatu da:

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Aurkako botoak: 1 (bat): Luis Felipe Campos Latre (PP).

Abstentzioak: 1 (bat): Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

### **7.2. Hiri-lurren balioa gehitzearen gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantza aldatzea. Zigor-erregimena.**

Alkate jn.: zigor-erregimen bat sortzeko proposamenaren xedea da aitortzea egiteko betebeharrak betetzen ez duen zergadunak ez izatea onurarik; hori dela eta, jar daitekeen zigorraren gutxieneko zenbatekoa handiagoa da aitortzea epe barruan egiten denean ordaintzea dagokiona baino.

Aurrekariak:

- 1) Hiri-lurren balioa gehitzearen gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketa-espeditatea; XI. titulua gehituko zaio: Arau-hausteak eta zerga-zehapenak.
- 2) Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikulua eta 44/1989 Foru Araua aplikatu behar dira.
- 3) Aurkeztutako proposamena:
  - 1) Behin-behinean onartzea hiri-lurren balioa gehitzearen gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketa; XI. titulua gehituko zaio: Arau-hausteak eta zerga-zehapenak.
  - 2) Jendaurrean jartzea Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikulua eta 44/1989 Foru Arauak ezarritako moduan eta epean.
  - 3) Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik aurkeztu ezean. Behin betiko onarpenaren akordioa argitaratzea arauak ezarritako moduan eta epean.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 2 (bi): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Villanueva Gutiérrez jn.: Zerga Sistemari buruzko gure jarrera da progresibitatea izatea: gehien duenak gehiago ordaintzea eta ordaindu ezin duenak hori egiaztatu eta ez ordaintzea. Eta zehapenen kasuan ere, gehien duen arau-hausleak gehiago ordaintzea.

Alkate jn.: Zigorra zehatutako gertakariaren arabera ezartzen da, ez subjektuaren arabera. Trafiko-isunetan ez du gehiago ordaintzen gehiago duenak, arau-hauste larriena egin duenak baizik.

### **7.3. Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan.**

Aurrekariak:

- 1) Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak Foru Sailak igorria. Erreferentzia alfanumerikoa: Ogas/ConvDFA IAEICIO2016.
- 2) Bildu udal-taldeak proposamen bat bidali zuen ekainaren 6an, eta, era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak Foru Sailari bidali zaio.
- 3) Alkate jaunaren proposamena, aztergaien zerrendatik gaia kentzeari buruzkoa, Bildu taldeak hitzarmenaren zirriborroari buruz egin duen proposamena ebaluatzeko.

Hau erabaki da:

- 1) Gaia aztergaien zerrendatik kentzea: Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan. Hartara, Bildu taldeak hitzarmenaren zirriborroari buruz egindako proposamena ebaluatuko da.

Aldeko botoak: 8 (zortzi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

#### **7.4. Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, zerga-helburuetarako informazioa trukatzeko.**

Aurrekariak:

- 4) Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa, zerga-helburuetarako informazioa trukatzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak Foru Sailak igorria.
- 5) Honako hauek ezarritakoa aplikatu behar da: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106.3 artikulua; Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 8. artikulua; Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 8. artikulua; eta Arabako Zerga Arau Orokorren otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 5.3 artikulua.

Hau erabaki da:

- 1) Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzahitzarmena onartzea, zerga-helburuetarako informazioa trukatzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak Foru Sailak igorritako zirriborroaren arabera.
- 2) Eduardo Terroba Cabezón alkatea ahalduz beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Aldeko botoak: 8 (zortzi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

#### **7.5. Kiroldegi-gunean hobekuntza obra eta autokarabanen aparkalekuko obren proiektua onartzea.**

Aurrekariak:

- 1) Apirilaren 24ko 14/1997 Foru Araua, Obra eta Zerbitzuetako Foru Plana eta Arabako Foru Aldundiak Toki Erakundearen Obra eta Zerbitzuetan Laguntzeko Bestelako Tresnak Arautzeko.
- 2) Deialdiaren oinarri arautzaileak, Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 12an onartutako 27/2015 Foru Dekretu bidez onartuak.
- 3) Martxoaren 4ko 75/2016 Foru Araua, Oyón-Oiongo Udalaririk diru-laguntza ematea erabakitzen duena kiroldegi-gunea hobetzeko obra eta autokarabanen aparkalekuaren obra egiteko, Obrak eta Zerbitzuak Foru Planaren kargura. Espediente-zenbakia: 16/10229.
- 4) Luis Hernández Mayoral arkitekto nagusiaren txosten teknikoa, proiektuak hirigintza- eta sektore-arauak nahiz irisgarritasun-arauak betetzen dituela berariaz dioena.
- 5) Egiaztatu da obrek ez dutela udal-lizentziarik behar, sustatzailea Udala bera delako.

Hau erabaki da:

1. Kiroldegi-gunea hobetzeko obra eta autokarabanen aparkalekuaren obra egiteko proiektu teknikoa onartzea. Proiektua Obrak eta Zerbitzuak Foru Planaren kargura egingo da, Pedro Moral Rueda arkitekto nagusiak idatzi du, eta Udala bera da sustatzailea. Halaber, berariaz onartzen da 4. aurrekarian aipatutako txosten teknikoa.
2. Gutxienez hamabost urtean diru-laguntzen xede diren azpiegiturei edo ekipamenduei egoera onean eusteko konpromisoa hartzea.

Aldeko botoak: 8 (zortzi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Villanueva jn.: Ea lortzen dugun behingoz egitea...

## **7.6 Bazterra aretoa berritzeko obraren proiektua izapidetzea.**

Honako hau gogorarazi da: martxoaren 4ko 75/2016 Foru Araua, Oiongo Udalarik diru-laguntza ematea erabakitzen duena Bazterra aretoa berritzeko obra egiteko, Obrak eta Zerbitzuak Foru Planaren kargura. Espediente-zenbakia 16/10230 da. Halaber, Bazterra aretoa berritzeko obraren proiektu teknikoa izapidetzeko premiaren berri eman da.

Obraren zenbatekoa dela eta, proiektu teknikoa onartzeko organo eskuduna alkatea da.

Berlaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

## **Azken puntua. Galderak eta eskaerak.**

Villanueva jn.: Nola da Manuel Establiéren gaia?

Alkate jn.: Udalak Manuel Establiéren abokatuak eskatutakoa egin du: Gizarte Segurantzaren alta eman 2012ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin (alta eman daitekeen data zaharrena). Manuel Establiéren abokatuari ohartarazi genion bateraezintasuna egon zitekeela ebazpena egin aurreko bileran, eta aurrera egiteko adierazi zigun.

Villanueva jn.: 24 urtean arduragabekeria egon da; batzordeetan zoriondu nizun beste aldera ez begiratzeagatik, beste alkate batzuk egin duten moduan. Hala ere, esan behar dut ez duzula trebetasunik izan gaia lantzeko. Manuel Establiék jakinarazi zidan bilera batean mehatxu egin zeniola eta horregatik erabaki zuela erreklamatzeko.

Alkate jn.: Ez da egia. Harekin bildu nintzen eta eskerrak eman nizkion hemen egin duen denboragatik, eta esan zidan hasieran batean ez zuela erreklamatzeko asmorik. Esan nion hori zela zentzudunena. Sektore publikorako bi lan egiten ari zela, eta bateraezintasunak izan zitezkeela... Zergatik mehatxatuko nuen erreklamatzeko asmorik ez zuela esan bazidan? Handik egun gutxira, abokatuarekin etorri zen beste bilera batean esan zidan kaltetuta sentitzen direla eta erreklamatu egingo dutela.

Ez dakit zer nahi zuen Manuel Establiék. Izan ere, esan zidaten gaiak ez zuela alkatetzatik atera behar; izan ere, bestela, gaiztotzat geratuko zela bera.

Villanueva jn.: Zuk esaten duzuna eta Manuel Establiéren bertsioa ez datoz bat.

Alkate jn.: Udalak Establiéri jakinarazi dio orain arte egiten ari zen zereginak egiten jarraitzeko, Obren eta Zerbitzuen arloko koordinatzailearen jarraibideen arabera. Eta Udalarik dagokionez, Manuel Establiék lehen egiten zituen zereginak egiten ditu.

Indesari jakinarazi diogu Gizarte Segurantzaren alta eman diogula, lanpostu bateraezintasunak izan zitezkeela uste genuelako. Indesaren irizpidea bat dator gure irizpidearekin.

Udalak ez du aitortu langilea lan-utzialdian; Indesak aitortu du.

Indesarekin egindako bileran, Manuel Establiéren erabakia izan zen ez uko egitea Udaleko lanpostuari, eta, itxura denez, horregatik Indesak izapidetu dio baja Gizarte Segurantzari. Indesak jakinarazi digu langilea borondatezko lan-utzialdiko egoeran aitortu duela eta ezingo duela atzera lanean hasi Oiongo Udalerako lan egiten badu.

Gamarra López Brea jauna irten egin da.

Villanueva jn.: Aurreko legegintzaldian txosten bat eskatu nuen Erregistro Zibilar erantzuteko zinegotziaren bateraezintasun-egoerari buruz, eta oraindik ez zait erantzun...

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:21ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko ekainaren 22an  
Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

*El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa S.L.*